


2705. Mapa: bichero / gaffe / boat hook

GALDERA: 82270



Bermeo: *Amun dakarren arrañe atrápateko* ['tʃíst'].
Elantxobe: *Platíxak eta olako arrañek atrápatako* ['tʃísta']. *Enbarkasiñuen tiritu eta ekarteko* ['bitʃéro'].
Lekeitio: *"Pitxéria", "txista". Pitxeru da sakátuteko, da txista ekárteko, tuntuxek edo atrápateko.*
Ondarroa: *Atun aundixe danin, su kañaberis da sure lagunak laguntzeko altzaten* ['káko']. *"Pitxeru" de gantxo diferenti kanoetan da yatitan.*
Deba: *"Alágia" dá, púnta burdñeskuá éukitze u ta sartzé'su lúrrian ta géo ári lotú katíakíñ. Béstia, kákuá, átzián kákuá, kerténakíñ. Angúletan itxekuán o [erabiltzen da], bestéla jun ingó litzake saría sártzen dáníán... Alágia sártzen dá áurrián ta ári lotú katíak o sokíakíñ o... ta géo botátze á kakúá, átzián: kakúá bé kerténakíñ ta góiko pendísarí ero... medíxarí ero... kakúakíñ... katíaztekó.*
Hondarribia: *Arraya arrapatu eta krokakin gantxo andi batekin sayzetetik kroka sartuta ateratzen dute.*